

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
21/2010	R17/2013	2013/09/09	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

Ebazpena: R 17/2013

Espedientea: 21/2010

Gasteizen, 2013ko irailaren 9an,

Euskadiko Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada presidenteak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak, honako

ERABAKIA

hartu du Estatuko Zerga Administrazioko Agentziak (aurrerantzean EZAA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean Gipuzkoako Foru Aldundia) aurka aurkeztutako gatazkari buruz, hau da, 1 ENTITATEAri (IFZ:) 2005, 2006, 2007 eta 2008ko ekitaldiei dagokien Sozietateen gaineko Zergari eta BEZari lotuta burututako eragiketen bolumena zehazteko eskumenaren inguruan, eta bolumen horretan administrazio desberdinei dagokien zatia zehazteko eskumenaren inguruan sortutako desadostasuna erabakitzeko. Gatazka hori 21/2010 espediente zenbakiaz izapidetzen ari da, Arbitraje Batzorde honetan.

I. AURREKARIAK

1. 1 ENTITATEA (aurrerantzean, entitatea) zerga-egoitza Madrilen duen sozietate bat da, eta 2005, 2006, 2007 eta 2008ko ekitaldietan, bai Sozietateen gaineko Zergan eta bai BEZan aurkeztu dituen aitortpenetan, 7 milioi eurotik gorago eragiketa bolumena adierazi du ekitaldi guztietan.

2. 2010eko urtarrilaren 8an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren idatzi bat jaso zuten EZAA-n, 2009ko abenduaren 16ko data daramana. Idatzi horretan jakinarazi zion "aipatutako entitatearen eragiketen bolumena egiaztatzeko jarduerak abiaraziak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
21/2010	R17/2013	2013/09/09	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

zituela” eta, 2006ko maiatzaren 18an Bilbon izenpetutako Zergen Kontrolari eta Akta Bakarrei buruzko Lantaldearen Ondorioen 4. apartatuan xedatutakoaren arabera, “eragiketen bolumena egiaztatzeke eta ikertzeko jarduerak hasteko” eskatu zion EZAARI.

3. EZAAR 2010eko urtarrilaren 19an erantzun zion egiaztapen-eskaera horri, eta bidezko informea egiteko eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari, hain zuzen ere aurreko aurrekarian aipatutako akordioetan aurreikusitako informea.

4. 2010eko otsailaren 16an, entitateak idatzi bat aurkeztu zuen EZAAr, eta idatzi horretan jakitera eman zionez, 2009ko abenduaren 22an Gipuzkoako Foru Aldundiak zitazio baten berri eman zion entitateari, 2009ko abenduaren 11ko data darama. Zitazio horretan jakinarazi zion ziurtapen eta konstatazio jarduerak abiaraziko zituela, 2005, 2006, 2007 eta 2008ko ekitaldietako Sozietateen gaineko Zerga eta BEZa direla-eta, entitatearen zerga-egoera hobeto ezagutzearren. Gipuzkoako Foru Aldundiak aipatutako idatzi horretan adierazten duenez, jarduera horiek “Ekonomia Itunaren 19.3 eta 29.6.Hirugarrena artikuluetan xedatutakoaren babesean ari da egiten (...) baina jardueren helburu bakarra izango da, aipatutako zerga eta ekitaldietan entitateak aitortutako eragiketen bolumena egiaztatzea eta Administrazioen artean bidezkoak izan daitezkeen konpentsazioak zehaztea”. Idatzi horretan adierazten denez, halaber, “Zergen Foru Arau Orokorraren 29. artikuluko 2. apartatuko g) letran ezarritakoari jarraituz, eta arauzko xedapenetan agindutako eran, zerga ikuskapen eta egiaztapenak errazteko obligazioa du zergapekoak”.

5. EZAAR, 2010eko apirilaren 16an, bezperako data daraman inhibizio errekerimendua egin zion Gipuzkoako Foru Aldundiari, 2005, 2006, 2007 eta 2008ko ekitaldietako Sozietateen gaineko Zergari buruz eta BEZari buruz entitatearen eragiketen bolumena egiaztatzeke eta ordaindu beharreko zerga-proporzioa zehazteko jardueretan atzera egin zezan.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
21/2010	R17/2013	2013/09/09	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

6. 2010eko maiatzaren 13an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren idatzi bat jaso zuten EZAAren. Idatzi horretan errefusatu egin zuen atzera egiteko eskaera hori, GFaren iritziz errekerimendua garaiz kanpo egin zelako, eta gainera, bere ustez eskumena zuelako 2005, 2006, 2007 eta 2008ko ekitaldietako Sozietateen gaineko Zerga eta Balio Erantziaren gaineko Zerga dela-eta, entitatearen egoera ziurtatzeko eta konstatatzeko egiten ari zen jarduerak burutzeko.

7. Gatazka hau EZAAk aurkeztu zuen 2010ko ekainaren 9an, eta Arbitraje Batzorde honek tramitatzeko onartzea erabaki zuen 2011ko irailaren 27an. Ondoren, erabaki horren berri eman zien Gipuzkoako Foru Aldundiari eta sozietate interesatuari. Gatazka aurkezteko idatzian, EZAAk Arbitraje Batzorde honi eskatu zion, deklara dezala "Gipuzkoako Foru Aldundiak ez duela eskumenik ez 1 ENTITATEAK (IFZ:) 2005, 2006, 2007 eta 2008ko ekitaldietan burututako eragiketen bolumena zehazteko, eta ez ekitaldi horietan Sozietateen gaineko Zergaren eta BEZaren kontzeptupean administrazio desberdinei ordaindu beharreko portzentajea zehazteko.

8. Instrukzioa egiteko izapidea bukatu eta espedientea osaturik, agerian jarri zitzairen bi administrazioei eta entitateari, bidezkotzat jotako alegazio guztiak Arbitraje Batzorde honetan aurkezteko hilabeteko epea emanez. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012ko abenduaren 3an erregistratu zituen bere alegazioak, gatazkaren aurka egiteko xedez aurkeztutako hasierako idatzian azaldutako argudioak berretsiz. EZAAk 2013ko urtarrilaren 3an erregistratu zituen bereak. Idatzi horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako garaiz kanpokotasunari erantzun ondoren, gatazka aurkezteko idatzian azaldutako argudioak berretsi zituen, laburbilduta, eta gatazka gorago adierazitako eran ebazteko eskatu. Entitate interesatuak bere alegazioak 2012ko abenduaren 20an erregistratu zituen Arbitraje Batzorde honetan. Idatzi horretan baieztatu zuen zerga-egoitza Madrilen duela, burututako eragiketen bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izan zela aipatutako ekitaldi horietan guztietan eta, bere eragiketa guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik burutzen ez dituenaz,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
21/2010	R17/2013	2013/09/09	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

Itunaren 19. eta 29. artikuluetan xedatutakoaren arabera, estatuko Ogasunari soil-soilik dagokiola entitatearen jarduerak egiaztatzeko eta ikertzeko eskumena, bai eta eragiketen bolumena zehazteko eta administrazio desberdinei ordaindu beharreko zerga portzentajeak finkatzeko ere.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Lehen-lehenik, gatazka garaiz kanpo aurkeztu den ala ez aztertu behar dugu; izan ere, hala balitz, auziaren mamia ezin izango genuke aztertu. Gai horri gagozkiola, 2007ko abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren indarrez onartutako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiak, 13.1 artikuluan ezarritakora jo behar dugu. Hauxe dio:

“Gatazka onartzeko eskakizun moduan, beharrezko izango da, gatazka aurkeztu baino lehenago, bere burua eskuduntzat jotzen duen zerga administrazioak eskugabe irizten dionaren inhibizioa eskatu izana, horrela bere eskumena erreklamatzuz, eta azken administrazio horrek errekerimendua errefusatu izana, eta bere eskumenean berrestea esanbidez nahiz isilbidez.

Aipatutako errekerimendu hori, gehienez ere, bi hilabeteko epean egingo da, bere burua eskuduntzat jotzen duen administrazioak *bere iritziz* Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak urratzen duen egintza edo egintzak ezagutzen dituen datatik kontatzen hasita”.

Gauzak horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esanetan, EZAAk garaiz kanpo aurkeztu zuen gatazka, 2010eko urtarrilaren 8an haren idatzia jaso zuenetik bi hilabete baino gehiago igarota zeudelako. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2010eko apirilaren 16an jaso zuen EZAAren inhibizio errekerimendua; beraz, GFAREN iritziz, EIEBAREN 13. artikuluan ezarritako epea bete eta gero.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
21/2010	R17/2013	2013/09/09	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

2. Ezin gara bat etorri Gipuzkoako Foru Aldundiaren ikuspuntuarekin; izan ere, honek, soil-soilik eragiketen bolumena egiaztatzeko jarduerak hasi izanaren berri eman zion EZAari, baina isilik pasa zituen EZAak gerora (2010eko otsailaren 16an) jakin zituen alderdi batzuk, eragindako entitateak jakinarazi zizkionak. Bi alderdi hauek, zehazki: bat, egiaztatzen ari den eragiketen bolumena ez dela foru lurraldean burututakoa bakarrik, entitateak aitortutako eragiketa guztiak egiaztatzen ari baita; eta bi, jarduera horien helburu nagusia, administrazioen artean izan litezkeen konpentsazioak zehaztea dela. Beraz, inhibizio errekerimendua epearen barruan egin da; izan ere, Estatuko Administrazioak, honen ustez Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak urratzen dituen egintzaren –entitate interesatuak 2010eko otsailaren 16an bidalitako idatzian aipatzen den egintza– berri izan zuen egunetik hasita bi hilabete igaro aurretik aurkeztu baitzen.

Are gehiago, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2010eko urtarrilaren 8an EZAari bidalitako idatzian, egiaztapen lanak amaitu ostean lan horiei buruzko informea bidaliko ziola jakinarazi zion. Espedientean ez dago EZAak informe hori jaso izana erakusten duen daturik. Aitzitik, espedientean jasota dagoena da, 2010eko urtarrilaren 19an EZAak informe hori posta elektronikoz erreklamatu zuela. Informe horren bidalketa bat dator gorago aipatu ditugun *Zergen Kontrolari eta Akta Bakarrei buruzko Lantaldearen Ondorioekin*. Ondorio horien Lau apartatuak honakoa dio:

“Zergadun jakin bat ikuskatzeko eskumenik ez duten administrazioek, zergadun horrek lurralde bakoitzean burututako eragiketen bolumena egiaztatzeko eska diezaioke administrazio eskudunari. Horretarako, ikuskatzeko eskumenik ez duen Administrazioak informe bat bidaliko dio eskumendunari, zergadunarengandik lortutako datuekin, hain zuzen ere xede horretarako behar-beharrezkoak diren datuekin”.

Gatazka ez du bultzatu estatuko Ogasunari 2010eko urtarrilaren 8an jakinarazitako idatziaren edukitik ondorioztatzen denak, baizik eta Gipuzkoako Foru Aldundiak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
21/2010	R17/2013	2013/09/09	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

EZAARI 2010eko otsailaren 16ko idatzian jakinarazitakotik ondorioztatzen denak. Izan ere, idatzi horretan adierazten zaionez, “jarduera horien helburu bakarra izango da, aipatutako zerga eta ekitaldietan entitateak aitortutako eragiketen bolumena egiaztatzea eta Administrazioen artean bidezkoak izan daitezkeen konpentsazioak zehaztea”; gainera, idatzi horrekin batera bidalitako “dokumentazio eskaeraren eranskina” izeneko idatzian, "memoriak eta kudeaketa txostenak” eta zergapekoak 2005, 2006, 2007 eta 2008ko ekitaldietan BEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren kontzeptupean beste Zerga Administrazioetan aurkeztutako aitortpenen kopia eskatzen zaio EZAARI. Bi idatzi horiek ez dira berdin-berdinak; hain zuzen ere, EZAA, bigarren idatziaren argitan ohartu zen Gipuzkoako Foru Aldundia ikuskapen lanak egiteko asmotan zebilela.

Kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2010eko urtarrilaren 8an jakinarazitako idatzian, *Zergen Kontrolari eta Akta Bakarrei buruzko Lantaldearen Ondorioen* babesean eskatu ziola EZAARI entitateak burututako eragiketen bolumena egiaztatzeko, garbi dago EZAAk pentsa zezakeen gauza bakarra zela, ikuskapen jarduerarik ez zegoela martxan, eta zehazki, GFAREN asmoa ez zela EZAAK bakarrik ikuska zezakeen entitate baten eragiketen bolumena egiaztatzea. Beraz, EZAAren iritzi ez zen abiatu ezen eperik. Epea 2010eko otsailaren 16an hasi zen, gorago aipatutako arrazoiak tarteko. Horregatik, ezin dugu onartu EZAAK gatazka hau epez kanpo aurkeztu duela esatea. Beraz, gatazkaren mamia aztertzen hasteko moduan gaude.

3. Sozietateen gaineko Zerga ikuskatzeko eskumenari dagokionez, Ekonomia Itunak 19. artikuluan xedatutakora jo behar dugu, hemen interesatzen zaigunerako. Hauxe dio:

"Bat. Subjektu pasiboak Euskadin badu zerga-egoitza, lurraldearen arabera eskumena daukan Foru Aldundiak egingo du Zergaren ikuskapena.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
21/2010	R17/2013	2013/09/09	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

Hala ere, subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa bada eta eragiketa guztien % 75 edo gehiago lurralde erkidean egina bada, subjektu pasiboa ikuskatzeko eskumena Estatuko Administrazioarena izango da.

Halaber, zerga-egoitza lurralde erkidean duten subjektu pasiboen ikuskapena lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiak egingo du, baldin eta subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa izan arren, eragiketa guztiak euskal lurraldean eginak badira.

Bi. Ikuskapenak egiteko lanetan, eskumena duen administrazioako arauak bete beharko dira, aurreko idatz-zatian ezarritakoaren arabera. Gainerako administrazioek lagundu egin diezaiokete eskumena daukan administrazioari.

Ikuskapen-lan horien ondorioz, zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo kopuru hori bi administrazioei badagokie, ikuskapen-lan horiek egin dituen administrazioak kobratu edo itzuliko du. Dagozkion konpentsazioak gero emango dizkiote bata besteari, beharrezkoa bada. Eskumena daukan administrazioako organo ikuskatzaileek beren jardunaren emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei”.

Hiru. Aurreko idatz-zatian xedatutakoak ezin ditu murriztu foru aldundiek beren lurraldeetan egiaztapenak eta ikerketak egiteko dituzten eskumenak. Baina foru aldundien jarduera horiek ez dute, administrazio organo eskudunen jardueren ondorioz egindako behin betiko likidazioak direla-eta, inolako ondorio ekonomikorik izango zergadunengan”.

(...)

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
21/2010	R17/2013	2013/09/09	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

Horrela bada, kasu honetan Estatuko Administrazioari dagokio ikuskatzeko eskumena; izan ere, entitateak Madrilen du bere zerga-egoitza, ekitaldi guztietan gainditu egin du 7 milioi euroko eragiketa bolumena, eta eragiketa guztiak ez ditu euskal lurraldean burutu.

4. Bestetik, Balio Erantsiaren gaineko Zerga ikuskatzeko eskumenari dagokionez, hauxe dio Ekonomia Itunaren 29. artikulua:

“Sei. Ikuskapena honako irizpide hauen arabera egingo da:

- a) Zergak foru aldundietan edo, hala badagokio, Estatuko Administrazioan, baina bietako batean bakarrik ordaindu behar dituzten subjektu pasiboak ikuskatzea, administrazio horietako bakoitzeko zerga ikuskaritzen lana izango da.
- b) Zergak lurralde erkidean edo euskal lurraldean egindako eragiketako kopuruaren proportzioan ordaindu behar dituzten subjektu pasiboak ikuskatzeko, honako arau hauek bete beharko dira:

Lehendabizikoa. Zerga-egoitza lurralde erkidean daukaten subjektu pasiboak: Estatuko Administrazioko organoek egingo dituzte egiaztapena eta ikerketa. Administrazio horrek, era berean, subjektu pasiboak administrazio eskudun guztietan zergen aldetik duen egoera erregularizatzeko lana hartuko du, administrazio batari eta besteari dagokion zerga-proportzioa barne.

Bigarrena. Zerga-egoitza euskal lurraldean daukaten subjektu pasiboak: zerga-egoitzari dagokion foru-administrazioko organo eskudunek egingo dituzte egiaztapena eta ikerketa, Estatuko administrazioak laguntza eman badezake ere. Ondorioak eskumena duten administrazio guztietan bete beharko dira, administrazio horiei dagokien tributazio-proportzioa barne.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
21/2010	R17/2013	2013/09/09	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

Subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eragiketen % 75 edo gehiago lurralde erkidean egina badu, zehaztutako lotura-puntuen arabera, eskumena Estatuko Administrazioarena izango da, foru aldundiek laguntza eman badezakete ere.

Ikuskapen-lan horien ondorioz, zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo kopuru hori bi administrazioei badagokie, ikuskapen-lan horiek egin dituen administrazioak kobratu edo itzuliko du. Dagozkion konpentsazioak gero emango dizkiote batak besteari, beharrezkoa bada. Eskumena daukan administrazioako organo ikuskatzaileek beren jardunaren emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

Hirugarrena. Aurreko arauetan xedatutakoa bete egin behar bada ere, horrek ezin ditu foru aldundiei bere lurralde barruan egiaztapenak eta ikerketak egiteko dagozkien eskumenak murriztu. Baina, era berean, foru aldundien aktuzioek ezin dute, administrazio eskudunetako organoen aktuzioen ondorioz egindako behin betiko likidazioen inguruan, zergapekoen artean inongo ondorio ekonomikorik izan”.

(..)

Horrela bada, Estatuko Administrazioak ere badu BEZa ikuskatzeko eskumena; izan ere, entitateak Madrilen du bere zerga-egoitza, eta zergak eragiketa bolumenaren proportzioan ordaindu behar ditu.

5. Eragiketen bolumena zehazteko gaitasuna, ikuskatzeko gaitasunarekin lotua dago; Ekonomia Itunaren 19. eta 29. artikuluetan horregatik lantzen da gai hori ere. Bi artikuluko horiek honakoa diote 4. apartatuan: “Administrazio eskudunak egiaztapenetan zehaztutako proportzioak kitatutako betebeharrei dagokienean ere

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
21/2010	R17/2013	2013/09/09	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

bete beharko ditu subjektu pasiboak. Horrek ez du esan nahi bi administrazioen artean behin betiko onartzen direnak bete behar ez direnik”.

Laburbilduz, bai Sozietateen gaineko Zergari dagokionez eta bai Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, gatazka hau erabakitzeko funtsezkoak diren bi erregela ezartzen ditu Ekonomia Itunak:

Bat, Administrazio bakar batek duela ikuskatzeko eskumena (kasu honetan, Estatuko Administrazioak). Hori ez da beti horrela izan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2003an emandako epaiak (Auzitegi Gorenak 2008ko otsailaren 5ean berretsitako epaiak) ohartarazten duen bezala; izan ere, Ekonomia Itunak, hasiera batean, negozioen zifra erlatiboaren sistema ezarri zuen, eta sistema horren ondorio saihestezina zen erregimen horri lotutako egiaztapen eta ikerketa bi administrazioen esku egotea (Ekonomia Itunaren 22.3 artikulua, 1981eko maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen idazkeran). Hala ere, bi administrazioek ikuskapen lanak batera egiteko urteko planak egitura zitzaketan eta, bestela, egindako aktak eskualdatu, edota egiaztapen jarduerak batera burutu. Egoera hori indarrean egon zen harik eta 27/1990 Legea, abenduaren 26koa, indarrean jarri zen arte, lege horrek neurri batean aldatu egin baitzuen Ekonomia Ituna).

Eta bigarren erregela da, eragiketen bolumena eta Administrazio bakoitzari ordaindu beharreko zerga-portzentajea, ikuskatzeko eskumena duen Administrazioak bakarrik erabaki ditzakeela (beraz, kasu honetan ere, Estatuko Administrazioak). Berrito ere Administrazio bakar bati aitortzen zaio ikuskatzeko eskumena.

6. Gipuzkoako Foru Aldundiak, egia esan, ez du aurkatu arestian aipatutako ondorioa; aitzitik, onartzen du ikuskatzeko eskumena Estatuko Administrazioari dagokiola, eta hain zuzen ere, zergadunarengandik lortutako datuei buruzko informea bidaliko ziola jakinarazi zion 2010eko urtarrilaren 8an. Gipuzkoako Foru Aldundiak dioena da, ikuskapen jarduerarik ez duela burutu; eta izaera horretako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
21/2010	R17/2013	2013/09/09	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

jarduerarik burutu ez badu, bere asmoa nekez izan zitekeela eragiketen bolumena zehaztea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren esanetan, ziurtapen eta konstatazio jarduerak ez dira ikuskapen jarduerak, hauen aurretik burutu beharreko egintzak baizik. Gainera, dioenez, ez da bidezkoa “ziurtapen eta konstatazio” jarduerak “egiaztapen eta ikerketa” jarduerekin parekatzea. Ildo honetan Gipuzkoako lurralde historikoko zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, martxoaren 8koak, 144.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, “(egiaztatzeko eta ikertzeko prozedura) hastea erabaki aurretik, ziurtapen eta konstataziorako aurretiazko jarduketak egin ahal izango dira, zeintzuk diren kasu konkrituaren zirkunstantziak eta prozedura hastea komeni den jakiteko asmoz”. Agindu hori 31/2010 Foru Dekretuak, azaroaren 16koak, onartutako Gipuzkoako lurralde historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamenduaren 16. artikuluan garatua dago arauz, eta erregelamendu hori aipagai dugun gatazka aurkeztu eta gero jarri zen indarrean. Dena den, horrek ez du inolako eraginik prozedura honetan.

7. Espedientean badago Gipuzkoako Foru Aldundiko Ikuskaritzako Zuzendariorde Nagusiaren idatzi bat, entitatea planean sartzekoa, 2009ko abenduaren 11ko data daramana. Horrek, entitatearen eragiketen bolumena ziurtatzea du helburu, entitateak aitortutako bolumenean, Gipuzkoari dagokion zatian, desberdintasunik badagoen ala ez jakiteko. Espedientean badago beste idatzi bat, 2009ko abenduaren 11koa hau ere, “ziurtapen eta konstatazio jarduerak hasteko zitazioari” buruzkoa. Idatzi horretan adierazten denez, entitateari jakinarazten zaio, Gipuzkoako lurralde historikoko zergen foru arau orokorrak, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, 5, 11, 136 eta 144.3 artikuluek emandako ahalmenak erabiliz, entitate horren datuak ziurtatzeko eta konstatatzeko jarduerak abiaraziko dituela, 2005, 2006, 2007 eta 2008ko ekitaldiei dagokien Sozietateen gaineko Zerga eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga direla-eta, entitatearen zerga-egoera hobeto ezagutzearen. Idatzi horretan jakinarazten zaionez, “Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren 19.3 eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
21/2010	R17/2013	2013/09/09	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

29.6.Hirugarrena artikuluetan xedatutakoari jarraituz, jarduera horien helburu bakarra izango da, aipatutako zerga eta ekitaldietan entitateak aitortutako eragiketen bolumena egiaztatzea eta Administrazioen artean bidezkoak izan daitezkeen konpentsazioak zehaztea”.

8. Gogora dezagun, Ekonomia Itunaren 19.Hiru eta 29.Sei artikuluen hirugarren erregelak, kasu batean zein bestean, honakoa ezartzen duela: “Aurreko idatz-zatian xedatutakoak ezin ditu murriztu foru aldundiek beren lurraldeetan egiaztapenak eta ikerketak egiteko dituzten eskumenak. Baina foru aldundien jarduera horiek ez dute, administrazio organo eskudunen jardueren ondorioz egindako behin betiko likidazioak direla-eta, inolako ondorio ekonomikorik izango zergadunengan”. Gipuzkoako Foru Aldundiaren esanetan, transkribatu berri dugun paragrafoaren babesean egin ditu ziurtapen eta konstatazio jarduerak, eta paragrafo horretan aipatzen diren ahalmenak, egiaztapen eta ikerketa arloko eskumenak dira. Baina aldi berean dioenez, uneoro aitortu du, gatazka honen mamian dauden kontzeptu eta zergaldietan, entitateari buruzko egiaztapen eta ikerketa jarduerak burutzeko eskumena Estatuko Administrazioari dagokiola. Horrela bada, Gipuzkoako Foru Aldundiaren irizpidean kontraesana dago; izan ere, ez da bidezkoa bere jarduera Ekonomia Itunaren 19.Hiru eta 29.Sei artikuluetan babestu nahi izatea eta, aldi berean, ziurtapen eta konstatazio jarduerak ez direla egiaztapen eta ikerketa jarduerak esatea.

Egoera horretan, bada, bi aukera daude: bat, Gipuzkoako Foru Aldundiak burutu nahi dituen jarduerak Ekonomia Itunaren beste artikuluren batean babestuak egotea; edota, bi, jarduera horiek egiaztapen eta ikerketa jarduerak direla aitortzea. Gure iritziz, bigarren aukera hori da zuzena. Baldin eta egiaztapen eta ikerketa jarduerak, zergapekoaren aurrean burututako ikuskapen jardueretara mugatuko balira, orduan sortuko litzateke arazoa; baina ez du horrela izan behar, ordea. Hau da, 1 ENTITATEA ikuskatzeko eskumena EZAAri dagokio; baina, hori horrela izanik ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak baditu eskumenak beste zergapeko batzuk ikuskatzeko,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
21/2010	R17/2013	2013/09/09	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

eta eskumen horiek erabilia lortutako datuak baliagarriak izan litezke beste ondorio batzuetarako; esate baterako, zerga-zentsuak egiteko eta zerga-egoitza egiaztatzeko.

Gainerakoan, ez da erabat zuzena, beti eta edozein kasutan, egiaztatzeko eta ikertzeko ahalmenak ikuskatzeko ahalmenekin parekatzea –are gutxiago, Ekonomia Itunaren 19.Hiru eta 29.Sei artikuluen testuinguruan–; izan ere, ahalmen horiek ez dira derrigorrez zergen ikuskapen esparruan egikaritzekoak, beste hainbat esparrutan ere burutu daitezke-eta. Gai honi gagozkiola, gogora dezagun, lurralde erkideari dagokionez, Zergen Lege Orokorrak 115. artikuluan aipatzen dituela egiaztapen eta ikerketa ahalmenak; eta artikulua hori, III. Tituluko II. kapitulu dago, hain zuzen ere “Zerga jardueri eta prozedurei buruzko arau erkideak” izeneko kapitulu dago. Foru lurraldeetako araudian ere halaxe ulertzen da (martxoaren 8ko 2/2005 ZFAO, 111. art., Gipuzkoan; martxoaren 10eko 2/2005 ZFAO, 113. art., Bizkaian; eta otsailaren 28ko 6/2005 ZFAO, 111. art., Araban). Jakina, Administrazio bakoitzaren egitura osatzen duten organoen artean –bai estatu mailan eta bai foru esparruan– izan daitekeen egiaztapen eta ikerketa ahalmenen barne banaketak, ez du aldatzen Ekonomia Itunean zehaztutako eskumen mugaketa.

9. Aipatutako idatzietan bigarrenean –2009ko abenduaren 11ko data daraman idatzian– adierazten denez, entitateak dokumentazio jakin batekin bertaratu behar du 2010eko urtarrilaren 27an, hain zuzen ere dokumentazio-eskaerako eranskinean zerrendatutako dokumentuekin. Honako hauek dira: *ordezkari izateko ahalordea; aipatutako zerga-kontzeptuak eta zergaldiak direla eta, zergapekoak beste Zerga Administrazioetan aurkeztutako aitopenen kopia; eta aipatutako zergaldi horietan Gipuzkoan egindako eragiketen xehetasunak. Espedientean jasota dago 2010eko urtarrilaren 27an luzatutako eginbidearen kopia. Horretan ikus daitekeenez, entitateak aurkeztu zuen eskatutako dokumentazioa, eta jarduera horiek, “Gipuzkoako lurraldeari dagokion eragiketen bolumena kalkulatzeko behar-beharrezkoak diren datuak bakarrik lortzeko xedez egin dira”.* Arazoa, jakina, beste

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
21/2010	R17/2013	2013/09/09	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

Zerga Administrazioetan aurkeztutako aitortzenen kopia eskatzeak, eta memoriak nahiz kudeaketa txostenak eskatu izanak ekarri du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ziurtapen eta konstatazio jarduerak burutu ditzake “bere lurraldean”, zergak ordainarazteko eskumena duenean, baina ezin du eskatu entitateak beste zerga Administrazio batzuetan –bereziki Estatuko Administrazioan– aurkeztutako aitortzenen kopia. Era berean, memoriak eta kudeaketa txostenak ere ezin ditu eskatu, agiri horiek Gipuzkoari buruzkoak ez diren datuak jasotzen dituztenean; eta horrelakorik ezin du eskatu, hain zuzen ere, agiri hori eskatzearen helburu bakarra ikuskapen eskumenak erabiltzea delako eta, gatazka honetan, garbi geratu den moduan, Ekonomia Itunak eskumen hori Estatuko Administrazioari eman diolako. Lurralde historiko bakoitzak bere barne esparruan definitu dezake, ñabardurak ñabardura, ikuskapen jarduerak eta prozedurak zer diren –hain zuzen ere Gipuzkoak eta Arabak (Bizkaiak ez ordea) erregulatu egin dituzte ziurtapen eta konstatazio jarduerak, lurralde horien iritziz ikuskapen prozeduraren hasiera jakinarazi aurretik burutzen direnak, nahiz eta jarduera horiek ikuskapen jarduerak direla ukatzen ez duten–, baina kanpo esparruan ez da horrela gertatzen. Horregatik, Ekonomia Itunean ikuskatzeko ahalmena zer den definitzen ez bada ere, onar liteke entitateari eskatutako dokumentazioaren zati bat, ohikoan ikuskapen jardueraz ulertzen dugun esparruari dagokiola. Eta hori horrela dela onartzen badugu, ondoriozta dezakegu Gipuzkoako Foru Aldundiak dagozkion eskumenak gainditu egin dituela Gipuzkoako Foru Aldundiak 2009ko abenduaren 11n egin zuen eta 1 ENTITATEARI hil horren 22an jakinarazi zion zitazioan aipatutako ziurtapen eta konstatazio jarduerak burutzerakoan.

Entitateak 2010eko otsailaren 16an EZAARI aurkeztutako dokumentazioa ikusita ziurta daitekeenez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa zen, ikuskatzeko ahalmenik izan gabe, formalki ikuskapen jarduerak ez badira ere, materialki izaera hori duten jarduerak burutzea. Zehazki, entitateak burututako eragiketen bolumena egiaztatu nahi zuen, Administrazioen artean izan zitezkeen konpentsazioei ekin ahal izateko,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
21/2010	R17/2013	2013/09/09	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. SZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

halakorik izanez gero behintzat. Gipuzkoako Foru Aldundiak eska dezake aipatutako eranskinean ageri den informazio osoa, betiere ikuskapen jarduerak burutzeko eskumena duenean. Baina, aipatutako kontzeptu eta zergaldietan, entitate interesatuaren aurrean halakorik eskatzeko eskumenik ez duenez, ondorioztatu behar dugu bere jarduera ez dela zuzenbidez egokia. Bere eskumenekoak diren alderdiei buruzko informazioa bakarrik eskatu behar zukeen.

Horrenbestez, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1 ENTITATEAri (IFZ:) egin dion dokumentazio eskaera ez dagoela Ekonomia Itunak kasu honetan ematen dizkion egiaztapen eta ikerketa ahalmenetan babestua.